



Nabarnizko Udala

U D A L A

NABARNIZKO UDAL FRONTOI PROBALEKU ERABILPENERAKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Araudi honen helburua, Nabarnizko udal eraikuntzak, zerbitzuak eta bereziki Frontoi Probalekua erabiltzeko, erabiltzaileen eskubide, betebeharrak eta baldintzak arautzea da, Euskal Herriko Kirolari buruz, ekainaren 11 ko 14/1998 Legeak xedatutakoa jarraituz.

II. ERABILTZAILEEI BURUZ

Erabiltzaileak.

2. artikulua.

Erabiltzaile izango da, kirol eraikuntzara sartu eta berari erabiltzeko eskubidea duen pertsona oro, horretarako lehenbizi Udalbatzak onartutako prezio publikoak ordaindu behar dituelarik, bai eraikuntza hauek kirol ekintzetarako zein kultura ihardueretarako erabili nahi baditu.

Klubak eta elkarteak.

3. artikulua.

Klubek eta federazioek udal eraikuntzak erabiltzeko aukera izango dute, entrenamenduak, norgehiagokak eta erakusketak egiteko.

Klubek eta federazioek Udalari eskatu behar izango diote eraikuntzak erabiltzeko baimena, partiduak, entrenamenduak, erakusketak, etab. antolatzeak.

Entrenamenduak eta/edo norgehiagokak egiteko eskaerak, urte bakoitzeko apirilaren 1etik maiatzaren 30 bitartean egin behar dira. Eskaeretan honako hauek agertu behar dira.

- Klub edo elkartearen izena.
- Afiliazio zenbakia.
- Helbidea.
- Telefonoa.
- Arduraduna.
- Egiteko den kirol ekintza.
- Kategoria.
- Aurrikusita dagoen erabiltzaile kopurua.
- Entrenamenduak egiteko ordutegia (gutxi gora behera).
- Interesgarri izan daitekeen beste edozer.

Instalazioak erabiltzeko baimena emanda dagoenean, erabiltzaileen zerrenda bat aurkeztu behar da, erabiltzaile guztien izen, abizen, jaiotze data, helbide eta telefono zenbakiarekin, urte bakoitzeko ekainaren 30-a baino lehen, baita kirolari bakoitzaren argazki bat ere.

Baimen hauek aurkeztutako eskarien arabera emango dira, eskatuako ordutegiak libre dauden orduekin bat datozen ikusiz, eta Udalak jarritako irizpide teknikoak jarraituz.

Baimenak kirol denboraldi baterako bakarrik balio du. Kirol denboraldia, irailaren 10ean hasi eta hurrengo urteko ekainaren 30ean bukatzen da.



Nabarnizko Udala

U D A L A

Norgehiagoka, ofizialak maiztasun batez egin nahi direnean, klubek eta elkarteek, gutxienez, hilabete arinago jakinarazi behar dituzte ordutegiak eta datak. Udalak 15-eguneko epea izango du eskaerak aztertu eta beharrezkoa balitz aldatzeko, ezohizko ekintza batek edo Udalaren erizpide teknikoek hala eskatzen dutenean.

Udalak antolatutako ekintzek lehentasuna izango dute entrenamenduak egiteko baimenen aldean, eta ezin izango da erreklamaziorik aurkeztu, honelako kasu batetan ordutegiak aldatu edo bertan behera utzi behar badira, nahiz eta aurretik baimenduta egon. Dena dela, honelakorik gertatuko balitz, astebete arinago jakinaraziko zaie interesdunei.

Araudi honetan zehaztutako baldintzak garatzeko, Udalak hitzarmen zehatzak sinatu ahal izango ditu klubekin eta kirol federazioekin.

Atal honetan aurrikusitako arauak eskola/ikastolei eta kultur arloko elkarteei ere aplikatuko zaizkie, instalazioak aldi baterako erabiltzeko baimena eskatzen dutenean, bai kirol ekintzetarako zein kultur ekintzetarako.

Kurtsoei eta kirol iharduerei buruz.

4. artikulua.

Kirol kurtsoek iraupen mugatua izango dute, aurretik zehaztutako programak jarraituko dituzte eta helburu zehatz eta jakinak izango dituzte.

Kurtsoetako ikasleek aldeztu aurretik egin behar dute izen ematea eta prezioen edo erabakitzen diren arbitrioen ordainketa.

Kurtsoko monitorea aldatuz gero, matrikularen diru ez da bueltan emango.

Kurtsoak urteko, hiruhilabeteko edo hilabeteko ordainduko dira, iraupenaren arabera.

Kurtso edo iharduera bakoitzeko zehaztuta egongo dira kuota, data, parte hartzaileen gutxienezko eta gehienezko kopurua, izen ematea egiteko tokia, etab...

Izena emanda kurtsoan jarraitu nahi ez bada, Udala jakinaren gainean jarri behar da, eta ordaindutako diru kopururik ez da itzuliko, urte osoko kurtsoetan izan ezik, eta beti ere behar bezala arrazoitutako kasuetan.

Udalak, bestalde, iharduera edo kurtsoak bertan behera utzi ditzake, berauekin jarraitzeko arrazoi objektiborik ikusten ez badu. Kasu honetan, kurtsoari eta epealdiari dagokion diru kopurua itzuli egingo da.

Udalak aurreko atalean aipatutako Klub eta Elkarteen esku utzi dezake kurtsoen antolaketa, aurretik dagokion Hitzarmena sinatu ondoren.

Erabiltzaileen eskubide eta betebeharrei buruz.

5. artikulua.

Dagozkien kuotak ordaindu dituzten banakako erabiltzaile guztiek dute eskubidea udal kirol instalazioak erabiltzeko, jendearentzako zabalik dauden ordu eta egunetan.

6. artikulua.

Erabiltzaile guztiek, orokorrean, ondoko eskubide hauek izango dituzte:

- Udalak eskeintzen dituen kurtso, zerbitzu eta bestelako ekintza orotan parte hartzeko eskubidea, bakoitzaren araudi zehatzak jarraituz.



Nabarnizko Udala

U D A L A

- Edozein unetan instalazioen arduradunen identifikazioa galdatzeko eskubidea, egoki derizkion errealmazioak egin ahal izateko.
- Araudi honen ale bat eskatu eta jasotzeko eskubidea.
- Indarrean dauden legeek eta Araudi honek ematen dizkien gainontzeko eskubideak.

7. artikulua.

Erabiltzaileen betebeharrak, orokorrean, ondokoak dira:

- Araudi honek adierazitakoa eta Udalak erabilerari buruz zehaztutakoa errespetatuz erabiltzea Udal instalazioak.
- Instalazioei eta ekipamentuari erabilera egokia ematea. Utzikeria edo erabilera desegokia direla eta gertatutako kalteen arduraduna, erabiltzailea bera izango da.
- Funtzionamenduan ezer oker balebil, zerbait apurtuta edo faltan balego edo Araudi honek araututakoa beteko ez balitz, instalazioetako langileei jakinaraztea.
- Beste erabiltzaileen eskubideak errespetatzea, batez ere orduak aldeztu aurretik erreserbatuta dauzkatenean.
- Kuotak sasoz eta eurei dagokien momentuan ordaintzea.
- Instalazioetan behar den moduko jokamoldea izatea, arduradunen lana oztopatu gabe. Arduradunei errespetua izatea beti da derrigorrezkoa, baita beraien esana betetzea ere.
- Norbere burua identifikatzea, legeak onartzen duen edozein modutan, instalazioetara sartzeko orduan arduradunek hala eskatzen badute.
- Bisitari soil gisa edo ikusle gisa instalazioetara sartzen diren pertsonak ere, betebeharrak hauek ase behar dituzte.
- Indarrean dauden legeek eta Araudi honek aurrakusten dituzten gainontzeko betebeharrak guztiak.
- Instalazioetarako sarrera eta erabilerari buruzko arau orokorrak.

8. artikulua.

Pertsonak, kirol elkarteak, klubak, ikastetxeak eta bestelako erakunde guztiak dute instalazioak erabiltzeko eskubidea, beraien helburua heziketa fisikoa, kirola eta kultura bultzatzea den heinean eta Udalak urtero onartuko dituen prezioak ordaintzen badituzte.

9. artikulua.

- Ondoko baldintzak errespetatuz erabiliko dira instalazioak:
 1. Instalazioaren ordutegi barruan.
 2. Kasu bakoitzerako programazioaren arabera.
 3. Kasu zehatzetan, Udalak adierazitakoari jarraituz.
- Erabiltzaileek eskura izan behar dute beti ordain-agiria edo kuota ordaindu dutela adierazten duen ziurtagiria, eta arduradunen batek eskatzen badiu, erakutsi egin behar du.
- Instalazioak erabili nahi dituzten ikastetxeak taldeka etorri behar dute, eman zaien orduan eta irakasle edo monitore arduradun batekin. Ikasleak bakarrik etortzea debekatuta dago.



Nabarnizko Udala

6 0 0 0 0

- Klubek, kirol elkarteek edo kultura elkarteek instalazioak erabiltzeko ordua erreserbatuta badute, instalazioetara datozenean, erreserba ematen dien agiria aurkeztu behar dute, edo bestela banakako txartela.

10. artikulua.

Debekatua dago instalazio barruan erre edo jatea eta beirazko objektuak barrura sartzea, Udalak aurrikusi eta baimendutako kasu berezietan izan ezik.

11. artikulua.

Instalazioak erabiltzerako orduan baliodun objekturik ez ekartzea gomendatzen dizuegu, takillek ez bait dute Udalarekin sinatutako babes kontraturik, eta beraz Udalak ez baitu takillak jagoteko erantzunkizunik.

12. artikulua.

Erabiltzaileak, kirolean ari den bitartean soilik erabili ditzake takillak. Behin kirol iharduera hori bukatuta, takillek libre geratu behar dute.

13. artikulua.

Arrastaketa probak egiteko baimena duten animaliak bakarrik sartu daitezke instalazioetan. Gainontzeko animalia guztiak debekatuta dute sarrera, larrialdi bati erantzuteko izan ezik, edo Udalak espreski onartutako egoera bereziren bat ez bada.

Frontoi Probalekurako arau bereziak.

14. artikulua.

Frontoi-Probalekuak ondoko ordutegia izango du:

- Neguko ordutegia (irailaren 16-tik ekainaren 14-ra, biak barne):

- Lanegunetan: 9:00etatik 23:00etara.
- Jaiegun, larunbat eta igandeetan: 8:00etatik 23:00etara.

- Udako ordutegia (ekainaren 15etik irailaren 15era, biak barne):

- Lanegunetan: 8:00etatik 23:00etara.
- Jaiegun, larunbat eta igandeetan: 8:00etatik 23:00 etara.

- Zerbitzu honen beharrezanean erantzuteko denean, ordutegi hau aldatu egin daiteke, Alkatearen Erabaki bidez.


15. artikulua.

Frontoi-probalekua erabiltzako, ordutegia eta ihardueraren arabera, aldez aurretik kanon bat ordaindu behar da, ondoren zerrendatuta doazen kasu eta orduetan izan ezik. Ordu hauetan erabilera publikoa izango da eta sarrera dohan:

- Lanegunetan, neguan:

- 17:00etatik 19:00etara: libre.

- Jaiegun, larunbat eta igandeetan, neguan:



Nabarnizko Udala

□ □ □ □ □

- 12:00etatik 19:00etara: libre.
- Lanegunetan, udan:
 - 11:00etatik 19:00etara: libre.
- Jaiegun, larunbat eta igandeetan, udan:
 - 12:00etatik 19:00etara: libre.

Libre dauden orduetan 3 argi proiektore baibo ez dira biztuko, bi frontoian eta hirugarrena probalekura zuzenduta.

16. artikulua.

Erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak urtero onartuko ditu Udalak, eta Araudi honi atxekitutako gehigarrian adieraziko dira.

Erreserbak egiteko araudiari buruz

17. artikulua.

Erreserbak Udaletxean egin behar dira, 9:30etatik 14:00etara.

Interesdunek eskaria aurkeztu behar dute, ondoko datu hauekin:

- Izen abizenak eta erabiltzailearen edo taldeko arduradunaren telefono zenbakia.
- Taldekideen izen abizenak eta udal honetan erroldauta dauden edo ez.
- Eskaera eguna eta ordua eta erabilera mota:

1. Kirola probalekuan (probak, etab...).
2. Kirola frontoian (eskupilota, futbitoa, saskibaloia, etab...).

Eguneko gehienez ere ordu 2 erreserbatu daitezke eta pertsona edo talde bakoitzari ez zaio astean 3 erreserba baino gehiago gordeko.

Erreserba arruntak gehien jota 15 egun arinago egingo dira; herri kiroletarako erreserbak, aldiz, gutxienez 15 egun arinago eskatu behar dira.

Kirol norgehiagoketarako erreserba eskuratu ahal izateko, antolatzaileak aurrekontua eta erantzunkizun zibilerako aseguruia aurkeztu behar ditu ezinbestez. Erantzunkizun zibilerako aseguruaren zenbatekoa, ikuskizun publikoak eta aisialdirako iharduerak arautzen dituen legedian dator zehaztuta.

Aipatutako iharduera hauetarako gordeta dauden egunetan ez da onartuko bestelako ezein erabilerririk.


Instalazioak alokatzeko arauak kirola ez den bestelako ekintzetarako

18. artikulua.

Titulu honen helburua, instalazioak erabiltzeko baldintzak eta erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak arautzea da, iharduera kulturalak, kirol ikuskizun bereziak edo kirola ez diren ekintzak egin nahi direnean.

19. artikulua.

Kirola ez den beste edozein ekintzetarako instalazio hauek erabiltzeko eskubidea dute, araudi hau betez, ekintza horiei dagozkien kuotak ordaintzen dituzten pertsona fisiko, kirol elkarte eta gainontzeko legezko entitate guztiek.



Nabarnizko Udala

U D O D O

20. artikulua.

Kirola ez den ekintzetarako instalazioak alokatzeko prozedura ondokoa izango da:

1. Instalazioak erabiltzeko eskaera, idatziz egina, Udalari zuzendua eta instalazioak noizko behar diren adierazten duena. Eskarian enpresa eskatzailearen datuak agertu behar dira (izena, helbidea, IFK, legezko ordezkaria, telefonoa...) edo bestela eskaria egiten duen pertsona fisikoaren edo elkartearen datuak.
Ekitaldiaren funtsezko helburua zein den ere jarri egin behar da ezinbestean eta musika jaialdi bat baldin bada, talde edo abeslari nagusia zen den ere bai.
2. Udalak 15 eguneko epean erantzungo du, Alkate Dekretu bidez. Eskaria onartuz gero, interesdunak 5 eguneko epea dauka Dekretuan adierazitako fiantza jartzeko, era honetan bakarrik izango baita erreserba baliozkoa.
Aipatutako epean fiantzarik jartzen ez bada, erreserba bertan behera geratuko da.
3. Eskatzaileak ekitaldia bertan behera uzten badu, ez zaio fiantzarik itzuliko. Ekitaldia bukatutakoan eta instalazioetan egon ez dela frogatu ondoren itzuliko da fiantza.
4. Ekitaldia hasi baino 15 egun arinago, eskatzaileak:
 - Instalazioaren alokairu kontratua sinatu behar du.
 - Alokairuaren zenbatekoa ordaindu behar du, esku-diruz edo ordainketa ziurtagiri bidez.
 - Ekitaldi honetarako kontratatutako Erantzunkizun zibilerako aseguru poliza aurkeztu behar du, eta baita poliza ordaindu duela ziurtatzen duen agiria ere.
Instalazioak 699 pertsona hartu ditzake gehien jota; beraz, aseguru polizaren zenbatekoa kopuru honen arabera izango da, aplikagarri den araudia betez.
5. Ekitaldirako lortu beharreko baimenak eta sortutako gastuak, eskatzaile edo antolatzailearen kontura izango dira, hala nola autore eskubideen ordainketa eta estatu, probintzi eta udal eremuko zergak.
6. Udalaren kontura izango dira argindarraren eta garbiketen gastuak eta instalazioak alokatuta dauden denboran instalazioetako langileek sartutako orduen ordainketa.
Ekitaldia dela eta sortutako gainontzeko gastuak (taulatua, aulkiak, iragarkiak, jagoleak, takiletako pertsonala, etab...), antolatzaile edo eskatzailearen kontura izango dira.
Ekitaldia aurrera eramateko argindar gehiago jarri izateak sortutako gastuak ere, eskatzailearen kontura izango dira.
7. Udalak instalazioetarako jarritako arduradunaz gain, antolatzaile edo eskatzaileak ekitaldirako arduradun bat izendatuko du. Bere eginbeharra ekitaldian sortu daitezkeen larrialdiak atontzea izango da eta bera arduratuko da ekitaldian parte aktiboa dutenen eta ikusle gisa datozenen jokamoldeaz eta ordenuaz.
8. Antolatzaileak bere egiten du instalazioetan gerta daitezkeen kalteak ordintzeko konpromezua.
9. Antolatzaileak pankarta edo iragarki-kartelak jarriz gero, ekitaldia bukatu eta gero kendu egingo dira.
10. Baimendutako pertsona edukiera edo aforoa ezin da gainditu.
11. Udalak erreserba eskari bati ezetza emateko eskubidea dauka, eskari horri baietza emateak arinago egindako erreserba bat kaltetuko balu.



Nabarnizko Udala

U D A L A

Zigor araudia

21. artikulua.

Araudi honetan zehaztutako arauak ez betetzea legehaustea da, eta 150,25 euro arterainoko izunaz zigortu egin daiteke.

22. artikulua.

1. Instalazioko arduradunek eskubidea dute, jokamolde egokia erakusten ez duten pertsonak ohartzeko eta beharrezkoa balitz, instalazioetatik botatzeko.
2. Lege hausteek ondoko zigor hauetako batzu jasoko dituzte:
 - a) Oharra.
 - b) Instalazioen erabiltzaile izateko eskubidea aldi baterako galtzea, (4 urteko epean gehienez).
3. Lege hausteak aztertzerakoan, Kirol legeak ezartzen duen eran tipifikatuak izango dira eta hoiekiko kontutuan izango da lege haustearen erantzunkizuna larriagotu, arindu edo salbuetsi egiten duen gertaerarik egon den. Hala ere, honek ez du esan nahi Udalak epaitegietara jo ezin duenik, erantzunkizun penal edo zibilik antzeman badu.
4. Erabilera desegokia dela eta gertatutako apurketak, giltzak edo materialak galtzeak, etab..., zigor ekonomikoa jaso dezakete.

23. artikulua.

Instalazioetako erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, Erreklamazio Liburu bat egongo da Udaletxean guztien eskura.

Erabiltzaile orok eska dezake erreklamazio liburua zerbitzuen funtzionamendu desegokia somatzen badu. Horretarako nortasun agiria erakutsi behar izango du lehenbizi, eta liburuan izen abizenak eta helbidea jarriko ditu.

Errekalmazioa egiten duenak Orri bat bete behar du kexua adieraziz. Orriaren kopia bat berak gordeko du, eta kexuari Udalak emandako erantzuna idatziz jasoko du.

Azken xedapenak

24. artikulua.

Udalak xedapenak edo erabakiak emateko eskubidea dauka, instalazioak modu egokian erabiltzeko xedez, Araudi honetan adierazitakoa argitu, aldatu edo garatzeko.

25. artikulua.

Araudi honetan aurrikusita ez dauden egoerak, Udaleko Aikate Lehendakariak argituko ditu, Kultura eta Kirolerako Batzorde Informatiboak bere azterketa egin ondoren.

26. artikulua.

Funtzionamendurako araudi honi egindako aldaketak edo bere indargabetzea era egokian emango dira jakitera, ahal den hedapenik zabalena jaso dezan.



Nabarnizko Udala

0 0 0 0 0

Tarifak urtero argitaratuko dira, iharduera administratiboak burutzearren eta zerbitzu publikoak ematearren ordaindu beharreko tasen ordenantzaren gehiagarri gisa.

27. artikulua.

Ordenantza hau, eta bere Eranskinaren aldarapenak 2003 ko abenduak 12 an onartu ziren behin betikoz, eta «Bizkaiko Aldizkari Ofizial»ean bere testu osoa publikatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

GEHIGARRIA

Kirol instalazioak erabiltzearren ordaindu beharreko tasa

- a. Frontoi Probalekua erreserbatzea: 5 euro/ordu.
- b. Dutxa zerbitzua: 2 euro/orduko.
Dutxa zerbitzua 10 lagun baino gehiagoko taldea denean: euro 1/pertsonako.
- c) Argi zerbitzua (10 proiektore): 2 euro/ordu.
- d) Zaldi eta idi probak, saio, desafio edo eguneko: 60 euro.
Gradak jartzearen: 45 euro modulo bakoitzeko.
Txapelketa ofiziala denean, dohan.
- e) Gizon probak, saio, desafio edo eguneko: 10 euro.
Gradak jartzearen: 45 euro modulo bakoitzeko.
Txapelketa ofiziala denean, dohan.
- f) Herri kirola, saio, desafio edo eguneko: 60 euro.
Gradak jartzearen: 45 euro modulo bakoitzeko.
Txapelketa ofiziala denean, dohan.
- g) Eskupilota partiduak, 1. eta 2.mailako pilotariekin eta afizionatuekin: 250 euro.
Gradak jartzearen: 45 euro modulo bakoitzeko.
- h) Bertsolari, dantza, trikitixa eta antzerki saioak, herri bazkari eta bestelako kultur ekitaldiak: 60 euro.
Ekintza hauek herriko jaietako programan sartuta dudenean, dohan.
- i) Musika kontzertuak: 150 euro saioko.
Gradak jartzearen, 45 euro modulo bakoitzeko.
Ekitaldi hauetan bermea jarriko da, gutxienez 600 euro-takoa eta gehienez 60.100 euro-takoa, sortu daitezkeen arrisku egoerak kontutan hartuta.
Herriko Jaietako programan sartutako kontzertuek ez dute tarifa hau ordaindu behar.